

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Daniel Defoeren euskal hiriak



Ezkerrean, Daniel Defoe (1660-1731). Eskuinean, idazleak deskribatutako hirietako bat, Gasteiz, XVII. mendean.

LONDRES, 1728. Daniel Defoe idazleak *Military Memoirs of Capt. George Carleton* abenturazko nobela argitaratu zuen, eta bertan hainbat euskal hiri deskribatu zituen, protagonistaren bidaiak aitzakia hartuta. Badakigu gaztetan *Robinson Crusoe*ren egilea Iberiar penintsulan izan zela, baina ez zehazki zer lurralde bisitatu zituen. Gainera, ezagutzen ez zituen lekuei buruzko informazioa biltzen eta horiek deskribatzen trebea zen. Beraz, ez dakigu deskribapenok lehen eskukoak diren.

Nobelaren erdialdera, akzioa Iruñera iristen da. Defoeren hitzetan, “mendi garaiez inguratutako haran atseginean” dago hiria. “Zorionez edo zoritxarrez” jesuiten ordena hantxe sortu zela dio, Ignazio Loiolakoa bertan zauritu izan ez balute ordena ez zukeela sortuko argudiatuta.

Carleton kapitaina nobelaren amaieran itzultzen da Euskal Herrira, Gasteizera hain zuzen. “Hiri gozo eta atsegina” zela esan arren, Defoe ez zen asko luzatu hiria deskribatzen eta protagonista Bilbora bidali zuen. “Bilbo, oso handia ez bada ere, hiri ederra, garbia eta ordenatua da. Amsterdamer bezala, ez dizute hirian gurdiz sartzen uzten, merkataritza gune garrantzitsua izan arren”.

Kapitainaren hurrengo geldialdia: Donostia. “Oso hiri garbia da, ederki

zolatua, eta hori ez da batere ohikoa Espainian. Harresi sendoak inguratzen du hiria, eta zitadela ederra ere badu”. Donibane Lohizune ere aipatzen da nobelan, “Frantziako hiririk garrantzitsuenetakoa” zela dio, eta protagonistak bertan ederki jan zuela aipatzen du.

Eta azkenik, kapitaina Ingalaterrara bidean itsasoratu baino lehen, Baiona du hizpide Defoek: “Hiri segurua da berez, ibaiaz bestaldean zitadela eraiki zutenetik gotorlekuak nahiko utzita dauden arren”. *Pont D'Esprit*en nagusiki juduak bizi zirela dio, merkataritzan aritzen zirela eta “munduko gainerako tokietan bezala, modu irregularrean” jarduten zutela.

Euskal hiriak laudatu arren, Defoek ez zien egurra juduei soilik eman. “Bizkaian ez nion inori ulertzen (...) Mandazainak Babelako nahasketatik aldatu ez den hizkuntza dutela esan zidan, hizkuntzatat baitaukate. Nire ustez, nahasketa horren ondorioa baino ez da (...) Harro daude ez erromatarrek, ez kartagoarrek, ez banda-loek, ez godoek, ez zituztelako mendean hartu. Baina lurralde hori ezagutzen duen edonork daki egia, (...) ez erromatarrek, ez kartagoarrek ez beste inork, ez zuen lur malkartsu eta antzu hori konkistatzeko inolako interesik”.



Arrastoak

Jane Austen pozoituta hil al zen?

JANE AUSTEN (1775-1817) idazle ingelesa ziurrenik artsenikoaren ondorioengatik hil zela jakinarazi berri du Lindsay Ashford idazleak. Ashfordek gutun bat topatu zuen Austenen liburutegian. *Harrotasuna eta aurrejuzkuak* nobelaren egileak hil baino lehentxeago idatzi zuen eskutitza, eta zera zioen: “Hobeto nago, itxura hobea daukat, orban zuri eta beltzek desitxuratu banaute ere”. Ashfordek artseniko bidezko pozoiduraren ohiko sintomatza jo zituen orban horiek, eta gainera museo batean gordetzen den Austen ile xerlo bati egindako azterketek artsenikoan positiboa eman zutela baieztatu du.

Dena den, hilketarik ez zela izan adierazi du, garai hartan artsenikoa botika askotan erabiltzen zelako eta, ziurrenik, Austenek erreuma arintzeko hartu zuelako.

